



❖ THE SOLANOS

Haidan emanaldia

Gaur *The Solanos* taldea arituko da Haidan, 20:00etatik aurrera. ||

❖ AEK

Mariskada zozketa

Urtero bezala mariskada zozketatuko du bihar AEKk eta errifak saltzen ariko dira: 12:00etatik aurrera eta 18:00etatik ilunabarra arte. ||

❖ EREÑOTZU

Ensaio-bilera

Gaur ensaio-bilera izango da Ereñotzuko ikastola zaharretan 19:30etan, gabon egunean kantuan ateratzeko. Bihar 13:30etan aterako dira. ||

❖ GABONAK

Zinerik ez Biterin

Gabonak direla-eta asteburu honetan ez da zine emanaldirik izango Biterin. ||

Kiroldegia itxita

Kiroldegia itxita egongo da abenduaren 24, 25 eta 31n eta urtarrilaren 1 eta 6an. ||

◆ FUTBOLA

Partiduak bihar

Bihar Labaien tomeoko finala jokatuko dute jubenetan Hernani eta R. Sociedad taldeak 11:30etan. Gorengo mailakoek berriz 16:30etan dute ligako partidua Zestoaren kontra. ||

❖ ETXERAT

Kontzentrazioa

Ettxerat elkartearen kontzentrazioa izango da gaur 20:00etan Plaza Berrian *Estatus politikoa orain. Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean. Horretaz gain errifak saltzen arituko dira Plaza Berrian 19:00etatik 20:30ak arte. ||

❖ GABONAK

Jostailu bilteta

Gaur jostailu biltzen ariko dira Kardaberaz kaleko 43garren zenbakian, Perura bidaltzeko. ||

Anabel Padilla/Antonio Pereira

AEK-ko euskara ikasleak:

«Seme-alabekin hitz egin eta gizartean integratzeko ikasi nahi dugu euskara»

Iaz jarri zuten martxan hainbat erakunde publiko, elkarte eta euskaltegien artean inmigranteak euskara klaseak jasotzeko ekimena. Aurten esperientzia hori errepikatatu nahi izan dute eta ikasle askok eman du izena horretarako.

Kronikak AEK-n dabilzan Antonio Pereira eta Anabel Padilla elkarrizketatu ditu.



Anabel Padilla eta Antonio Pereira euskara ikasten ari dira AEK-n

Noiztik bizi zarete bertan? Ba izan zenuten lehenago euskararen berri?

Antonio Pereira: Ni Angolako naiz baina 12 urte daramazkit Euskal Herrian, horietatik 4 Hernanin. Banuen euskeraren berri, lehenago 3 hilabetez hemen izan bainintzen behin betiko etorri aurretik; esaldi solte batzuk ere egiten nituen euskaraz.
Anabel Padilla: Nere kasua ezberdinagoa da. Zazpi urte daramazkit hemen eta euskararen berri jakin nuen nire senarra hemengoa delako, *Mich* hurakana zela eta euskaldun asko joan zen Nikaraguara laguntzera eta harreman sendoa sortu zen.

Eta zerk motibatatu zaituzte euskara ikastera?

A. Padilla: Nik familia bat osatu dut hemen eta nere seme-alabekin euskaraz hitz egin nahi nuke. Gainera euskara ikasteak ate asko irekitzen ditu gaur egun.

Antonio Pereira:
«Ordu gehiago sartu nahiko nituzke euskara ikasten»

Anabel Padilla:
«Nire semearekin euskaraz hitz egitea dut helburu»

A. Pereira: Bai, nik uste dut bertako gizartean integratzeko modu bat gehiago dela euskara ikastea.

Nola jakin zenuten euskara ikasteko programa hau bazela?

A. Padilla: Ni lagun batzuek animatu ninduten Udaletxera informazio bila joateko, eta

hala egin nuen.

A. Pereira: Neri berriz gutun bat bidali zidaten Udaletxetik eta ordutegia bateragarria zela ikusi nuen ez izena eman nuen.

Zaila iruditu al zaizue?

A. Pereira: Nik lehenago banekizkien esaldi batzuk eta uste nuen errazagoa zela, baino ikasten hasi naizenean ikusi dut uste baina zailagoa dela hizkuntza hau, gramatika erabat ezberdina baita. Hala ere, klase bakoitzean zerbait ikasten da eta asko aurreratzen ari gara.

Klaseak gustokoak izango dira...

A. Padilla: Bai bai, klase dina-

mikoak dira eta gure artean asko hitz egiten dugu ikasitako ez ahazteko.

Orduan, euskara ikasteak baliu izan dizue zerbaitetarako, mezezi du?

A. Pereira: Dudarik gabe, baliagarri izan daitekeen hizkuntza bat gehiago da, baina horretaz gain elkarbizitzarako laguntzen du...

A. Padilla: ...Euskara jakinda bertako bat gehiago bezala sentitzen zara.

A. Pereira: Ni gustora nago klaseekin baina uste dut ordu gutxi direla, irailan hasi ginen eta astean lau ordu egiten ditugu. Nik ordu eta erdi egin nahiko nuke egunean, gehiago aurreratzeko. ||

Programaren helburua

EUSKALTEGIKO arduradunek azaldu dutenez, klasearen helburua da pertsona hauek euskararekin "lehenengo kontaktua izatea", gero, ikasten jarraitu nahi izanez gero, euskaltegiek eskaintzen dituzten gainerako klasetara sartuko lirake. Normalean lehenengo klaseetan saiatzen dira komunikaziorako hitz garrantzitsuenak ikasten eta beren artean askotan errepikatzen dituzte hitz horiek. Inguruko kulturaren berri ere ematen dute "hori ere garrantzitsua dela uste dugu", diote. ||

MARI FE
ARRANDEGIA
ORDUTEGIA
GOIZEAN: 8:00 ~ 14:00
ARRATSALDEAN: 16:30 ~ 20:00
NAGUSIA 36 943 550 489

HERNANI HIZKUNTZAK
(Gure Ingelesetxea)
Lehen hiru hilabeteko azken klase eguna, abenduak 23, ostirala.
Berrito, klaseen hasiera, urtarrilak 9, astelehena.
ZORIONAK eta urte berri on!
MATRIKULA ZABALIK
Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08
KALE NAGUSIA 41, 1.

Hernaniko emakumeen historiari buruzko liburua
Edozeinentzako opari polita...
Lete liburu dendan salgai.
AHOZSAK
EMAKUMEAK HISTORIAN
HERNANI (1936 - 1970)
U.BARRUTIBENGOA N.ELIAS G.GONZALEZ A.RODRIGUEZ

TELEFONDAK 1 Taxiak: 943 550093 1 Udaltzaingoa: 943 333288 1 DYA: 943 464622
1 Autobusak: 943 556662 1 Anbulatorioa: 943 006666 1 Jokalari anonimoak: 943 331103
1 Alkoholiko anonimoak: 943 331103 1 FARMAZIAK 1 Egunez: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077
1 Gauez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA GAUR Gaur ere zeruak garbi jarraituko du eta izotza botako du. Temperaturak egunez pixka bat gora egingo du eta 14°Cetara iritsiko da.

BIHAR Eguraldiak ez du aldaketa handirik izango. Berriz ere zeruak garbi ikusiko dugu eta hotza nagusituko da. Temperaturak berdin jarraituko du.

Punta puntako bertso jaialdia gaur kiroldegiko pelotalekuan

Lujanbio, Zelaia, Egaña, Iturriaga, Arzallus eta Elortza ariko dira. Omenaldi txiki bat egingo zaie 'Aterpe' eta Garin bertsolariei.

PUNTA puntako bertso jaialdia dago gaur Hernaniko kiroldegiko frontoian, gaueko 22:00etan: Maialen Lujanbio, Iñaki Zelaia, Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Amets Arzallus eta Igor Elortza ariko dira kantuan, Gorka Toloxa gai jartzailearen esanetara. Bertso Lata barruko ekitaldi nagusi honen hasieran Antton Garin eta Julian Ezeiza Aterpe bertsolariei omenaldi txiki bat egingo die Bertso Eskolak eta herriko saioetan gehien ibili ziren garaiak eskertu nahi dizkien herritar taldeak. Saiorako txartelak gaur ere salgai izango dira 20:30ak arte Kitto, Aralar, Oindi eta Tripontzin tabernetan (bukatu ziren baina gehiago jarri dituzte) eta



Txapelketako 5 lehenengoak eta Zelaia, gaur.

21:00etatik aurrera pelotalekuan bertan, 5 eurotan. Antolatzaileek jakitera eman dute, berogailua jarriko dutela pelotalekuan gaur, egunotako hotzari aurre egiteko. ||

Sarrerak Kitto, Aralar, Oindi eta Tripontzin, 20:30ak arte eta bertan 21:00etatik

Pelotalekuan berogailua jartzekoa dute gaur

❖ TXANTXANGORRI - Txakur eta guztiko ehiza txapelketa

Juan Mari Ugalde txapeldun: hiru faisán, zazpi eper eta oilagor batekin

Sari banaketa urtarrilaren 13an izango da, Txantxangorriin.

IGANDE honetan izan da Txantxangorriko XXVIIgarren txakur eta guztiko ehiza txapelketaren bigarren saioa (hilaren 11ean egin zen lehenengo). Bi saioetako puntuak batuta Juan Mari Ugalde izan da aurtengo txapelduna 1.119 punturekin. Ugaldek hiru faisán, zazpi eper eta oilagor bat bota zituen guztira.

Bigarren Emilio Crespo geratu da, puntu bakar batera, bi faisán eta bederatzi eperrekin eta hirugarren Ibai Beraza, 914 punturekin.

Berazak, bi faisán eta zazpi eper botata, jubenilen artean lehenengo postua lortu du gainera.

Askatutako faisán eta eperren %76 eta %65 bota dituzte, hurrenez hurren.

117 pieza, hogeitabost ehiztariaren artean Guztira 25 ehiztarik hartu dute parte aurtengo edizioan eta 117 pieza bota dituzte (38

faisán, 78 eper eta oilagor bakarra.

Afaria eta sari banaketa urtarrilaren 13an izango da Txantxangorritik jakinarazi dutenez, sari banaketa urtarrilaren 13an izango da. Afaltzeko 20:30etan egin dute zita, parte hartzaile, juez eta laguntzaile guztiekin. Sariez gain, erosketa bono batzuk zozketatuko dira bertan ehiztariaren artean eta baita epaileen eta lanean aritu diren guztien artean ere. ||



'Hoki' lentzeria berria ireki dute Antziolan.

Agustinadarren Plaza Berriko 4garren zenbakian Lentzeria berria ireki dute, (Lehenago Latsunbe auzoan zegoena). Atzo egin zuten denda berriaren inaugurazioa, giro ezin hobean. Argazkian, Dami nagusia ageri da denda barruan. ||

❖ ARTISAUTZA

Maider Kalonjeren lanak Goiz Argin

Maider Kalonjeren egur tailako lanak ikusgai daude Goiz Argi tabernan. Erakusketa urtarrilaren 6ra arte egongo da zabalik. ||

❖ EHNA

Erabilera eguna gaur eta ekintza Donostian

Hernaniko Bai Euskal Herriari ekimenak, gaur, EHNA-ren erabilera egunean, Donostiako San Martin azokan arratsaldeko 18:00etan egingo duten ekintzan parte hartzera dei egiten du. ||

❖ ETIOPIA ERAKUSKETA

Perkusio saioa gaur Biterin

Gaur arratsaldeko 19:00etatik aurrera perkusio saioa izango da Etiopiar buruzko erakusketa-azokan. Bertan izango dira Oreka TX taldeko Arkaitz eta Igor eta baita Rami, Goizuetan bizi den afrikarra ere. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Kotxea salgai. Peugeot 206. 115.000 km ditu eta 1999koa da. Prezioa 4000 €. Interesatuek deitu: 618 816 960

25 urteko Administraria lan bila. Deitu: 660 580 862

Urrezko katea galdu nuen, larunbatean, Hernaniko kaxkoan. Familiako errekueroa da. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 943 552767

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Etxe bat salgai Gudarien plazan. 50 m2 ditu. Interesatuek deitu: 679 10 75 06 (Arratsaldeko 13:30etatik 15:30etara)

BALANTXA

dvd 24 ordu - prentsa - liburuak - opariak - txutxeak

ANTZIOLA 7 ☎ 943 55 35 58